

## **LIBURU ELEKTRIKOEN IRAKURGAILUEN MAILEGU ZERBITZUAREN ARAUAK**

### **1. Erabiltzaileak eta erabiltzeko baldintzak**

1.a.- Orixe BHIko irakasleak eta ikasleak dira liburu elektronikoen irakurgailuen mailegu zerbitzuaren erabiltzaileak. Erabiltzaileak liburu digitalen irakurgailuen mailegurako eskubidea du, mailegurako baldintzak urratzeagatik zigortuta ez badago.

1.b.- Erabiltzaileak baldintzak onartu behar ditu eta liburu elektronikoen irakurgailuen mailegu inprimakia sinatu behar du.

1.c.- Irakurgailua liburutegira itzultzean piztuta egongo da, liburutegiko arduradunak dena ondo dagoela azter dezan. Irakurgailuarekin batera maileguan hartutako material osagarria (kargagailua eta zorroa) ere itzuliko da.

1.d.- Irakurgailuaren erabilera erraztuko duten jarraibideak dituen azkarreko gida emango zaio, hala behar duen erabiltzaileari. Era berean, irakurgailuaren mantenturako gida ere luzatuko zaio.

1.e.- Irakurgailua ematean batería beteta izango du eta erabiltzaileak ere hórrela itzuliko du.

### **2. Maileguaren baldintzak**

2.a.- Liburu elektronikoen irakurgailuen mailegua norberarena eta besterenezina da eta etxerako mailegu eran egiten da. Erabiltzaile bakoitzak irakurgailu bakarra hartu ahal izango du maileguan.

2.b.- Maileguen iraupena 21 egunekoa izango da. Epea luzatu nahi izanez gero, liburutegiko arduradunari astero eskatu beharko zaio, eta honek erabakiko du aste bakoitzean epea luzatu hala ez, irakurgailu beharraren edo eskaera kopuruaren arabera. Itzultzeko data atzeratuz gero, irakurgailuen mailegu zerbitzua erabiltzeko eskubidea eten egingo da.

2.c.- Liburu digitalen irakurgailua etengabe izango da erabiltzailearen zaintzapean, berau baita irakurgailu eta osagarrien kontserbatze eta erabilera onaren erantzulea. Irakurgailua hartu zen baldintza beretan bueltatu behar da.

2.d.- Erabiltzaileak gailuan dauden hardwarea eta softwarea ezin izango ditu manipulatu.

2.e.- Erabiltzaileak liburu elektronikoen funtzionamenduan, hala hardwarea nola softwarean, nolabaiteko akats edo arazorik antzematekotan, berehala jakinarazi beharko dio liburutegiko arduradunari.

2.f.- Galtzekotan edo erabilera okerragatik hondatzekotan, erabiltzaileak hartuko ditu gastuak bere gain eta, arau-haustea zein den, zerbitzu honetatik at gera daiteke denboraldi beterako edo behin betiko.

2.g.- Erabiltzaileak Jabetza Intelektualaren arloan indarrean dagoen legeria errespetatzeko eta irakurgailua egoki erabiltzeko konpromisoa hartzen du.